2021-04-27an EGINDAKO OHIKO OSOKO BILKURA.

SESIÓN ORDINARIA DEL PLENO DE LA CORPORACIÓN. Día 27-04-2021 .

BERTARATUAK- ASISTENTES

Alkate-Udalburua

Josu Ezkurdia Santamaría

Zinegotziak

Maite Uribe Beristain
Antonio Regaño Sájeras
Josu Ezkurdia Santamaría
Ana Belén de Castro Ramos
Eluska Irazu Henández
Nestor Arana Arexolaleiba
Dorleta Sologaistoa Aguiriano
Leire San Vicente Carrillo

Idazkaria

EDURNE ITURBE LASKURAIN

Eskoriatzan, 2021eko apirilaren 27an, arratsaldeko 18:00etan, Josu Ezkurdia Santamaria jarduneko Alkate-Udalburua buru dela, eta goian aipatutakoen parte hartzearekin, telematikoki bildu da Udalbatza, ohiko bilkuran, gai zerrendan zehaztutako gaiei buruz hitz egiteko. Ez dira etorri Jose Ramon Zubizarreta Alegria, Purificacion Regidor eta Ander Errarte.

En Eskoriatza, siendo las 18:00 horas del día 27 de abril de 2021, TELEMATICAMENTE quedó constituido el de la Corporación en sesión bajo la Presidencia del Señor Alcalde-Presidente en funciones D. Josu Ezkurdia Santamaría, con la asistencia de los señores que arriba se expresan para tratar de los asuntos reseñados dentro del Orden del Día. No asisten José Ramón Zubizarreta, Purificación Regidor y Ander Errarte.

## 1.- AURREKO BILKURETAKO AKTAK ONARTZEA.

2021/03/23an egindako osoko bilkurako akta onartu da.

## 2.- ALKATEAREN JAKINARAZPENAK.

2021eko apirilaren 20ra arte hartutako erabakien berri eman da.
Ondoren, berariaz jakinarazten dira 5. eta 6. kreditu aldaketa espedienteak onartzeko hartutako erabakiak.

## 3.- UDAL ORDEZKARIA LEINTZ UDAL EUSKALTEGIKO JUNTAKO KIDE IZENDATZEA .

Pertsonal eta Ogasun batzorde informatzaileak egindako proposamenari jarraituz, aho batez erabaki da Leire San Vicente Carrillo zinegotzia izendatzea Leintz Udal Euskaltegiko Juntarako kide Udalaren ordezkari bezala.

## 4.- UDAL ORDEZKARIA, ESKORIATZAKO ELIZATEEN ELKARTEAK (EEE) PROPOSATUTA, JOSE ARANA FUNDAZIOAREN PATRONATUKO KIDE IZENDATZEA.

Pertsonal eta Ogasun batzorde informatzaileak egindako proposamenari jarraituz, aho batez erabaki da Maria Jesus Fernandez de Arroyabe izendatzea Jose Arana Fundazioaren Patronaturako kide Udalaren ordezkari bezala, Eskoriatzako Elizateen Elkarteak proposatuta.

## 5.- ONARTUTAKO ESKUBIDEEI BAJA EMATEA.

Preskribatuta egoteagatik, kreditu kobraezin deklaratuta egoteagatik, bidezkoak ez izateagatik, bikoiztuta egoteagatik edo beste arrazoiren batzuengatik aurreko ekitaldietatik kobratu gabe gelditu ziren eskubideen baja onartzeko Diru Bilketa Zerbitzuak tramitatutako espedientearen berri eman da.

Pertsonal eta Ogasun batzorde informatzaileak egindako proposamenaren arabera, eta bertaratutako udalbatzarkide guztiek alde bozkatuta, Udalbatzarrak honako hau ERABAKI DU:

**LEHENENGOA.-** Kobratzeko dauden eskubideei baja emateko talde espedientea onartzea ondorengo taulan agertzen diren kontzeptuengatik, bertan agertzen diren subjektu pasiboei eta bertan jasotako diru kopuruengatik:

ZERGAK ETA TASAK:

| KONTZEPTUA/ EPEA/ZENB | ZENBATEKOA € | ZERGATIA | ZERGADUNA |
|---|---|---|---|
| HONDAKINAK/ 2019 02 565 | 1123,16 | JARDUERA GABEKO PABILOIA. | GOLD SNITCH INDUSTRIAL, S.L. |
| IBILGAILUAK/ 2014 01 2504 | 144,35 | PRESKRIPZIOGATIKO BAJA. Ahalegina egin da kontu korronteen enbargo bidez kobratzeko, baina ez da emaitzarik lortu. | TEIXEIRA PACHECO ANTONIO MANUEL |
| IBILGAILUAK/ 2014 01 2505 | 204,35 | PRESKRIPZIOGATIKO BAJA. Ahalegina egin da kontu korronteen enbargo bidez kobratzeko, baina ez da emaitzarik lortu. | TEIXEIRA PACHECO ANTONIO MANUEL |
| IBILGAILUAK/ 2014 01 2506 | 204,35 | PRESKRIPZIOGATIKO BAJA. Ahalegina egin da kontu korronteen enbargo bidez kobratzeko, baina ez da emaitzarik lortu. | TEIXEIRA PACHECO ANTONIO MANUEL |
| IBILGAILUAK/ 2014 01 2687 | 144,35 | PRESKRIPZIOGATIKO BAJA. Ahalegina egin da kontu korronteen enbargo bidez kobratzeko, baina ez da emaitzarik lortu. | VITA ESCOBAR ANTONIO |
| IBILGAILUAK/ 2014 01 2688 | 262,65 | PRESKRIPZIOGATIKO BAJA. Ahalegina egin da kontu korronteen enbargo bidez kobratzeko, baina ez da emaitzarik lortu. | VITA ESCOBAR ANTONIO |
| IBILGAILUAK/ 2015 01 2678 | 262,65 | PRESKRIPZIOGATIKO BAJA. Ahalegina egin da kontu korronteen enbargo bidez kobratzeko, baina ez da emaitzarik lortu. | VITA ESCOBAR ANTONIO |

**ISUNAK**

| ZENBATEKOA € | ZERGATIA | ZERGADUNA |
|---|---|---|

| | | |
|---|---|---|
| 52,50 € | EXEKUTIBARA PASATU GABE | Calero Zaldua Aitor |
| 25 € | DGT-N PUBLIKATZEKO ARAZOAK | Jimenez Corral Marcos Saul |
| 25 € | DGT-N PUBLIKATZEKO ARAZOAK | Jimenez Corral Marcos Saul |
| 25 € | DGT-N PUBLIKATZEKO ARAZOAK | Ochoa Aramburuzabala Jose Angel |
| 100 € | DGT-N PUBLIKATZEKO ARAZOAK | Jimenez Corral Marcos Saul |
| 25 € | DGT-N PUBLIKATZEKO ARAZOAK | Jimenez Corral Marcos Saul |
| 25 € | DGT-N PUBLIKATZEKO ARAZOAK | Nabaskues Delgado Oihane |
| 25 € | DGT-N PUBLIKATZEKO ARAZOAK | Jimenez Corral Marcos Saul |
| 25 € | DGT-N PUBLIKATZEKO ARAZOAK | Leceta Aguirregabiria Ander |
| 100 € | DGT-N PUBLIKATZEKO ARAZOAK | Plazaola Lopez de Aguileta Maria Begoña |
| 25 € | DGT-N PUBLIKATZEKO ARAZOAK | Legorburu Gongora Iker |
| 25 € | DGT-N PUBLIKATZEKO ARAZOAK | Construcciones Goera SL |
| 25 € | DGT-N PUBLIKATZEKO ARAZOAK | Lijo Perez Mikel |
| 25 € | DGT-N PUBLIKATZEKO ARAZOAK | Tera Garcia Garbiñe |
| 25 € | DGT-N PUBLIKATZEKO ARAZOAK | Es Saoudi Mohamed |
| 25 € | DGT-N PUBLIKATZEKO ARAZOAK | Piso Rico SL |
| 210 € | EXEKUTIBARA PASATU GABE | Gallastegui Goicolea German |
| 25 € | DGT-N PUBLIKATZEKO ARAZOAK | Fontecha Garcia Javier |
| 25 € | DGT-N PUBLIKATZEKO ARAZOAK | Rodriguez Antunez Ramona |
| 25 € | DGT-N PUBLIKATZEKO ARAZOAK | Regidor Varela Isaac |
| 25 € | DGT-N PUBLIKATZEKO ARAZOAK | Bañu-etxe SL |
| 25 € | DGT-N PUBLIKATZEKO ARAZOAK | Urreta Iza Rosa Maria |
| 25 € | DGT-N PUBLIKATZEKO ARAZOAK | Egaña Osa Jose Maria |
| 25 € | DGT-N PUBLIKATZEKO ARAZOAK | Regidor Varela Isaac |
| 25 € | DGT-N PUBLIKATZEKO ARAZOAK | Muhammad Ashfaq Khurram |
| 100 € | DGT-N PUBLIKATZEKO ARAZOAK | Anduaga Iraola Ramon |
| 25 € | DGT-N PUBLIKATZEKO ARAZOAK | Vega Armenteros Ainhoa |
| 25 € | DGT-N PUBLIKATZEKO ARAZOAK | Abasolo Altuna Aritz |
| 25 € | DGT-N PUBLIKATZEKO ARAZOAK | Sanchez Duarte Ana Isabel |

| | | |
|---|---|---|
| 25 € | DGT-N PUBLIKATZEKO ARAZOAK | Regidor Varela Isaac |
| 25 € | DGT-N PUBLIKATZEKO ARAZOAK | Azkarate Vitoria June |
| 25 € | DGT-N PUBLIKATZEKO ARAZOAK | Larrano Basolanak SA |
| 25 € | DGT-N PUBLIKATZEKO ARAZOAK | Rodriguez Fernandez Maria Blasa |
| 25 € | DGT-N PUBLIKATZEKO ARAZOAK | Sanz Villar Mikel |
| 25 € | DGT-N PUBLIKATZEKO ARAZOAK | Castro Jara Mikel |
| 250 € | BIDE PENALA | Errasti Arzaburu Leire |
| 52,50 € | EXEKUTIBARA PASATU GABE | Zubizarreta Bengoa Liher |
| 52,50 € | EXEKUTIBARA PASATU GABE | Legorburu Gongora Iker |

**BIGARRENA.-** Erabaki honen berri ematea kontuhartzailetza eta diruzaintza udal zerbitzu ekonomikoei beste arrazoiren batzuengatik preskribatutzat edo baliogabetutzat deklaratutako zorrei baja eman diezaieten kontabilitate eta diru-bilketa kontuetan.

## 6.- KREDITUAK ALDAKETZEKO 7. ESPEDIENTEA: KREDITU-TRANSFERENTZIA.

Udal honetako aurrekontuan eragina duen kredituak aldatzeko 7. espedientearen berri eman da. Kreditu aldaketa aurrekontuetako gastu partiden arteko kreditu transferentzia bidez egingo da.

Idazkari-kontuhartzaileak egindako txostena irakurri da, non adierazten baitu aipatutako espedientea aplikagarri zaion araudiari egokitzen zaiola, hain zuzen ere, Toki Erakundeen Aurrekontu erregelamendua onartzen duen Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauko 28 a) eta 29 artikuluetan ezarritako betebeharrei.

Era berean, Pertsonal eta Ogasun batzorde informatzaileak egindako aldeko txostena eta onespen proposamena irakurri dira.

Aztertu eta bototara jarrita, bertaratutako udal batzarkide guztiek alde bozkatuta, Udalbatzarrak honako hau ERABAKI DU:

**Lehenengoa.-** Udal honetako aurrekontuari dagozkion kredituak aldatzeko 7. espedientea onartzea, horretarako egindako proposamenean zerrendatzen diren aurrekontuetako gastu partiden arteko transferentzia bidez, eta ondorengo kapitulukako laburpenaren arabera.

**Kreditua transferituko duten gastu partidak (bajak)**

| Partida | Izena | Hasierako kreditua | Murrizketa | Amaierako kreditua |
|---|---|---|---|---|
| 1 0200.160.920.00.01 2021 | GIZARTE-ASEGURANTZA: ADMON OROKORRA | 42.177,01 | 2.100,00 | 40.077,01 |
| 1 0200.160.342.20.01 2021 | GIZARTE-ASEGURANTZA: KIROLDEGIA | 27.422,47 | 2.286,54 | 25.135,93 |
| | | | | |
| | **GUZTIRA** | **69.599,48** | **4.386,54** | **65.212,94** |

**Kreditua jasoko duten gastu partidak (altak)**

| Partida (*) | Izena | Hasierako kreditua | Gehikuntza | Amaierako kreditua |
|---|---|---|---|---|
| 1 0400.481.341.10.01 2021 | DIRU LAGUNTZA:ESKOLA-KIROLA | 17.121,82 | 1.386,54 | 18.508,36 |
| 1 0300.481.231.93.01 2021 | DIRU LAGUNTZA:P.JOSE ARANA.UR HORNIDURA | 0,00 | 3.000,00 | 3.000,00 |
| | | | | |
| | **GUZTIRA** | **17.121,82** | **4.386,54** | **21.508,36** |

* Aurrekontuko partida berriak sortu ahal izango dira

**Bigarrena.-** Egintza hau irmoa eta exekutiboa izanik, Fondoak Interbenitzeko Zerbitzuak, bestelako tramite barik eta berehalako eraginarekin, kontabilitatean adieraziko du onartutako kreditu aldaketa.

**7.- KREDITUAK ALDATZEKO 8. ESPEDIENTEA: KREDITU GEHIGARRIAK.**

Kredituak aldatzeko 8. espedientea irakurri da. Kreditu aldaketa hori kreditu gehigarri bidez egingo da eta eragina du Udal honetako aurrekontuan.

Idazkari-kontuhartzaileak egindako txostena irakurri da, non adierazten baitu aipatutako espedientea aplikagarri zaion araudiari egokitzen zaiola, hain zuzen ere, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauko 34. artikuluan ezarritako beharkizun eta tramiteei.

Idazkaritza-kontuhartzailetzaren txostena ikusita, Pertsonal eta Ogasun batzorde informatzaileak egindako proposamena bototara jarri da; eta, Udalbatzarrak, bertaratutako 5 zinegotzik alde bozkatuta (EAJ/PNVko 4 eta EEEko 1) eta EH BILDUko 3 zinegotziak abstenituta, honako hau ERABAKI DU:

**Lehenengoa.-** UDAL honetan indarrean dagoen ekitaldiko aurrekontuari eragiten dion kreditu gehigarri bidez kredituak aldatzeko 8. espedientea onartzea, egindako proposamenaren eta ondorengo kapitulukako laburpenaren arabera:

| **Gastuen partida** | **Azalpena** | **Kredituak** | | |
|---|---|---|---|---|
| | | **Egungoak** | **Aldaketak** | **Behin betikoak** |
| 1 0100.227.162.10.13 2021 | MANKOMUNITATEA:HONDAKIN BILKETA | 182.836,07 | 572,53 | 183.408,60 |
| 1 0100.227.162.20.13 2021 | MANKOMUNITATEA:HONDAKIN KUDEAKETA | 35.903,94 | 112,42 | 36.016,36 |
| 1 0100.227.162.30.13 2021 | MANKOMUNITATEA:HONDAKIN TRATAMEN | 119.913,07 | 375,53 | 120.288,60 |
| 1 0500.227.241.00.13 2021 | MANKOMUNITATEA:ENPLEGUA | 18.108,46 | 126,50 | 18.234,96 |
| 1 0400.227.340.00.13 2021 | MANKOMUNITATEA:KIROLA | 1.231,68 | 8,64 | 1.240,32 |
| 1 0500.227.432.00.13 2021 | MANKOMUNITATEA:TURISMOA | 13.366,98 | 485,34 | 13.852,32 |

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| 1 0200.421.920.00.01 2021 | MANKOMUNITATEA:ADMON.OROKORRA | 43.589,83 | 293,33 | 43.883,16 |
| 1 0200.721.920.00.01 2021 | MANKOMUNTATEA:ZERBITZU OROKORRA | 1.037,20 | 6,90 | 1.044,10 |
| 1 0500.721.241.00.01 2021 | MANKOMUNTATEA:ENPLEGUA | 64,83 | 0,45 | 65,28 |
| 1 0600.721.324.00.01 2021 | APORTAZIOA:MANKOMUNIT:HEZKUNTZA | 194,48 | 1,36 | 195,84 |
| 1 0500.721.432.00.01 2021 | APORTAZIOA:MANKOMUNIT:TURISMO | 64,83 | 0,45 | 65,28 |
| 1 0100.470.150.00.01 2021 | SURADESA | 10.730,52 | 160,92 | 10.891,44 |
| 1 0100.622.933.00.02 2021 | BESTELAKO ERAIKIN ETA ERAIKUNTZAK | 0,00 | 10.612,23 | 10.612,23 |
| 1 0100.623.342.20.02 2021 | INSTALAZIOAK:KIROLDEGIA | 0,00 | 76.649,00 | 76.649,00 |
| 1 0100.601.153.30.03 2021 | HIRI ALTZARIAK | 9.000,00 | 20.000,00 | 29.000,00 |
| 1 0100.601.153.20.07 2021 | LUIS EZEIZAKO PATIOAN HOBEKUNTZAK | 0,00 | 60.000,00 | 60.000,00 |
| 1 0100.601.153.20.01 2021 | BERREURBANIZAZIOAK | 30.000,00 | 70.000,00 | 100.000,00 |
| 1 0100.622.342.20.01 2021 | KIROLDEGIA | 28.744,50 | 30.000,00 | 58.744,50 |
| 1 0100.622.323.40.02 2021 | LUIS EZEIZA IKASTETXEA | 129.115,00 | 2.000,00 | 131.115,00 |
| 1 0100.601.162.10.08 2021 | KONPOSTAGAILUAK | 0,00 | 4.000,00 | 4.000,00 |
| 1 0100.625.920.00.99 | BESTELAKO | 0,00 | 21.988,00 | 21.988,00 |

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| 2021 | LANABESAK:HAZI | | | |
| | | | | |
| | **GUZTIRA** | 623.901,39 | 297.393,60 | 921.294,99 |

| Kod. | Partida | Azalpena | Zenbatekoa |
|---|---|---|---|
| a | 2 0200.870.000.00.01 2021 | DIRUZAINTZAKO GERAKINA:GASTU OROKORRETARAKOo | 297.393,60 |
| | | | |
| | | **FINANTZAKETA GUZTIRA** | **297.393,60** |

**<u>Bigarrena.-</u>** Jendaurrean jartzea hamabost egunez nahi duenak erreklamazioak aurkez ditzan. Erreklamaziorik ez badago, erabaki hau behin betiko bihurtuko da, eta espediente honi Aurrekontu Orokorra onartzeko ezarritako gainontzeko tramite berak egin beharko zaizkio.

**<u>BOTO AZALPENA:</u>**

- Nestor Arana (EH BILDU taldearen izenean): gu abstenitu egingo gara eta orain esango ditut arrazoiak. Puntu gehienekin ados gaude: Intxaurtxuetako irisgarritasun-planarekin (hori izan zen aurtengo aurrekontuen negoziazioan eskatzen genuen gaietako bat), baita H@ZIrekin ere (Udal honen modernizazioarekin eta eraginkortasun handiagoarekin, horretarako hasieratik erakutsi baitugu gure babesa); eta zer esanik ez Luis Ezeizako obrekin, guztiekin ados gaude. Orduan, oro har, ados gaude; eta zergatik gure abstentzioa? Prozesuarekin deseroso sentitzen garelako, eta zergatia argituko dut: iazko ekainean, hainbat murrizketa ekonomiko egitea eskatu zen, eta horrela, hainbat elkarterentzako aurrekontua murriztu zen. Eta hori da abendura arte izan genuen mezua. Abenduan laguntza batzuk jarri ziren martxan, baina badakigu berandu iritsi zirela. Eta, aurtengo aurrekontuei begira, zenbait egokitzapen ekonomiko egin behar zirela ere esan zen. Gure irakurketa orokorra da, iazko aurrekontua kitatu denean, gure harridurarako, aurrezkia 747.073 eurokoa izan delako. Orduan, kosta egiten zaigu beste irakurketa bat egitea, ahalegina eskatu zitzaien hainbat talderi, laguntza batzuk berandu iritsi ziren, eta orain balantze hori dugu, eta ezin da

positibotzat jo, dugun egoera izanda. Gure ustez, diru horrekin sortzen dira partida berri horiek orain. Are gehiago, orain dela bi hilabete aurrekontua onartu zenean ere ez zen erraza izan partidak doitzea, eta orain aurrekontu-aldaketa oso garrantzitsua dugu, ez 5.000 edo 6.000 eurokoa, 297.000 eurokoa baizik. Orduan, egoera honen aurrean erabat deskolokatu ginen. Iazko mezuak; aurtengoak, aurrekontua negoziatzeko orduan; eta orain, igoera garrantzitsu hori. Egoera horren aurrean, ez dugu iparra non dagoen ikusten, ez gara eroso sentitzen. Gogoan dut azarotik abendura bitartean langile batek itxaron egin behar izan zuela kobratzeko, eta ez dakit oraindik kobratu duen, egoera hori eta orain emaitza ekonomiko hori. Kosta egiten zait herritarrei azaltzea zer gertatu den hainbeste ahalegin eskatu ondoren. Eta, gainera, partida gehienekin ados egonik, gehienak obretara bideratzen dira. Orduan, horregatik guztiagatik, abstenitu egingo gara. Eta adibide zehatz bat jarriko dut, Goienaren kasua. Iaz ahalegin bat egiteko eskatu zitzaion, aurten ere eskatu zaie eta orain partida horiek ditugu. Kokatzea kostatzen zaigu, baina, agian, ahaztu egin zaizue sartzea. Edo partida txikiren bat ere sar zitekeen lehen sektoreari laguntzeko, hura bultzatzeko eta Aldunditik edo Mankomunitatetik izan ditzaketen laguntzak osatzeko.

- Josu Ezkurdia: eskerrik asko, Nestor. Alde batetik, aurreko ekitaldiko emaitza ona dela aipatu duzu, eta horrela da. Baina guretzat ez da ezustekoa izan, iaz egindako lanaren eta ahaleginaren emaitza delako. Iaz murrizketa txikiak izan zirela esan duzunean, ahaztu egin zaizu aipatzea 500.000 euroko inbertsioak aurreikusi zirela eta 400.000 eurori zegozkionak gauzatzeari utzi behar izan zitzaiola. Hau da, ez ziren inbertsio horiek gauzatu, eta horregatik izan da emaitza. Egia da egindako murrizketa txikiek lagundu dutela, baina arrazoi nagusia hori izan da: iaz egin ez genituen inbertsioak eta aurten egiten hasi nahi ditugunak. Ez dituzu aipatu ez mantentze-kontratuak, ez herritarrei emandako zerbitzuenak; horietako batzuk murriztu egin behar izan ziren, eta horrek ere gastua murriztea ekarri zuen. Langileen kapitulua kenduta, gastuen atalik garrantzitsuena mantentze-lanei eta zerbitzuei dagokiena da, eta hor bai ahalegin handia egin genuela. Egia da, onartzeko ekarri dugun aldaketa, garrantzitsua dela zenbatekoari dagokionez, ia 300.000 euro. Egin nahi ditugun inbertsioak emango dizkiguten dirulaguntzekin ere finantzatzea espero dugu; hau da, inbertsio horiek 200.000 euro badira, 80.000 eta 90.000 euro arteko dirulaguntzak lortzea espero dugu. Zergatik orain eta ez abenduan edo aurrekontua onartu zenean? Bada, martxoan jakin dugulako iazko aurrekontuaren likidazioaren emaitza. Eta emaitza ziur jakin arte ezin genuen planteamendurik egin. Aurtengo aurrekontuari dagokionez, egia da ekarpenak egin zenituztela, proiektu batzuk oso interesgarriak eta diru gutxikoak ziren eta guk

kontra-proposamen bat egin genizuen. Prest geunden konpostajearena, lehen sektorearentzako laguntzak eta hainbat proiektu onartzeko; eta zuek ezetz esan zenuten. Dena den, adibidez, konpostaje-proiektua sartu dugu, baina ez genuen zuen babesik izan aurrekontuetan. Aurrerago, lehen sektorerako laguntzaren bat sartzeko asmoa dugu. Proiektu hori ere aterako dugu, noski, zuen laguntzarekin eta Leireren taldearekin. Oraindik hasi besterik ez gara egin, eta urtean zehar hainbat proiektu jarriko ditugu martxan. Dena den, bi mezurekin geratuko naiz; alde batetik, eskerrik asko zuen laguntza "neutroagatik” abstentzioarekin, eta, bestetik, eskerrik asko proiektu batzuk aurrera ateratzeko eskaintzen diguzuen laguntzagatik.

## 8.- 2020-2023 DIRULAGUNTZEN PLAN ESTRATEGIKOAREN ALDAKETA.

Udalbatzarrak, 2019ko abenduaren 17an egindako bilkuran, 2020-2023 dirulaguntzen plan estrategikoa onartu zuen.

Plana onartuta, komenigarria ikusi da planaren 2021-eranskinean jasotako aurreikuspenetako batzuk aldatzea LERRO ESTRATEGIKOETAKO dirulaguntza programa batzuen eremu subjektiboa edota objektiboa zabaltzeko edo aldatzeko.

Aldaketa horiek honako hauek dira:

A.- 3. LERRO ESTRATEGIKOAN: “GIZARTE EKINTZA” JOSE ARANA PATRONATUARENTZAKO, fundazioaren gastu arrunta gutxitzeko asmoz, ur hornidurarako DIRULAGUNTZA PROGRAMA SORTZEA.

B.- 2. LERRO ESTRATEGIKOA: KIROL SUSTAPENEKO ESKOLA KIROLA PROGRAMAN aurreikusitako finantzazioa HANDITZEA behar bereziak dituzten pertsonei zuzendutako ekitaldiak finantzatzen laguntzeko.

Pertsonal eta Ogasun batzorde informatzaileak egindako proposamenaren arabera, eta bertaratutako udalbatzarkide guztiek alde bozkatuta, Udalbatzarrak honako hau ERABAKI DU:

**LEHENENGOA.-** GIZARTE EKINTZA 3. LERRO ESTRATEGIKOAN JOSE ARANA PATRONATUARI DIRULAGUNTZA EMATEKO PROGRAMA SORTZEA- ur hornidura.

HARTZAILEA: Jose Arana Patronatuaren Fundazioa.

HELBURUA: Ur hornidura.

LORTU GURA DENA: Jose Arana fundazioak ostatu alternatiboa eskaintzen die, inolako irabazi asmorik gabe, zenbait gorabeherengatik beraien etxeetan bizitzen jarraitu ezin duten edo jarraitzerik nahi ez duten adineko pertsonei. Eta, Eskoriatzako Udalak bereziki garrantzitsutzat jotzen du eskoriatzarren ongizaterako fundazioak bere jarduerarekin jarraitzea eta duen gastu arrunta ordaintzen laguntzea.

DIRULAGUNTZA MOTA: Izenduna, jenerotan.

2021eko KOSTUEN AURREIKUSPENA: 3.000- euro.

**FINANTZIAZIOA:** 0300.481.231.93.01.2021

**BIGARRENA.-** KIROLAREN SUSTAPENA 2. LERRO ESTRATEGIKOKO ESKOLA KIROLA PROGRAMAN aurreikusitako finantzazioa HANDITZEA behar bereziak dituzten pertsonei zuzendutako ekitaldiak finantzatzen laguntzeko.

**A) PROGRAMAREN DESKRIBAPENA: Eskola Kirola**

HARTZAILEAK: LEK

HELBURUA: Urteetan Leintz Eskola Kirola, beste udal batzuekin eta Gipuzkoako Foru Aldundiarekin, eskualdean eskola kirola sustatzeko egiten ari den lana bultzatzea.

LORTU GURA DENA: Eskola kirola sustatzea 3. LH-tik 2. DBH-raino

DIRULAGUNTZA MOTA: Dirulaguntza izenduna, hitzarmen erregimenean.

2021eko KOSTUEN AURREIKUSPENA: 17.121,82 € + 10.399 €.

FINANTZIAZIOA: 0400.481.341.10.01 partida

## 9.- ENBA ETA EHNE SINDIKATUEK ESKATUTA ALKATETZAK AURKEZTUTAKO MOZIOA: mendiko abeltzaintzaren eta otsoaren populazioaren kontrolaren aldeko mozioa.

Josu Ezkurdiak, bere taldeak mozioaren alde egingo duela aurreratu ondoren, mozioaren edukiaren laburpen bat egin du. Era berean, jakinarazi du bai elizateen udal-taldeak bai sektorean lan egiten duten udalerriko pertsona askok adierazi dutela mozioan egiten diren planteamenduak beharrezkoak eta komenigarriak direla.

Hona hemen onartzeko proposatzen den mozioaren hitzez hitzezko transkripzioa:

**Mendiko abeltzaintzaren eta otsoaren populazioaren kontrolaren aldeko mozioa**

2020ko otsailaren 5ean Eusko Jaurlaritzako Ingurumen sailburuak otsoa espezie mehatxatuen Euskal Katalogoan interes bereziko kategorian sartzeko tramitazioaren hasera onartzea erabaki zuen, Naturzaintza-Euskal Autonomia Erkidegoko Natura Kontserbatzeko Aholku Batzordearen gehiengoa aurka bozkatu arren. 2021eko otsailaren 4an Trantsizio Ekologikoa eta Erronka Demografikorako ministeritzako Natura Ondarearen batzordeak, otsoa babes bereziko erregimenean dauden espezieen zerrendan sartzea erabaki zuen, otsoaren populazioaren %95a baino gehiago ordezkatzen duten elkargo autonomoen ordezkariek aurka bozkatu arren.

Aurrez aipatutako Batzordearen diktamena ez loteslea bada ere, Ministeritzako arduradun nagusien hitzetan, batzordeak hartutako norabideari eutsi egingo diote azken muturreraino.

Erabakia behin betikoz hartuko balitz Euskadiko abeltzaintza estentsiboarengan ondorioak larriak eta berehalakoak lirateke, otsoen populazioa areagotuko litzakeelako gure mugakide diren elkargo autonomoetan eta honenbestez, Euskadin otso populazioak sartu eta egonkortzeko arriskua areagotuko genuke, eta honek, ondorio larriak ditu, bai gure mendiko abeltzaintza estentsiborako bai ardi latxa, babestu nahi diren mendiko larretokiak eta Idiazabal gaztarentzat.

Une honetan, azienda (ardiak, behiak, behorrak, pottokak,…) mendian kudeatzen dugun abeltzainok, kezkatuta eta beldurtuta gaude otsoaren zabalkundearen aurrean orain arte bizitu dugun maneju estentsiboaren amaiera suposa dezakeelako eta honenbestez, erabakiaren azken helburua hori ez bada ere, abeltzaintza estentsiboarekin amaitu eta erabateko maneju intentsibora joan beharko dugulako.

Honenbestez, abeltzainok, Eskoriatzako Udalari honako hau eskatzen diogu:

1-Eskoriatzako Udalak bere konpromezu tinkoa agertu nahi du mendiko abeltzaintzarekin eta gure mendiak larretzen dituzten ardiak, ahuntzak, behiak eta zaldiekin. Aziendaren maneju estentsiboak, kalitatezko eta elikagai osasuntsuen ekoizpenarekin batera, ingurunearen zaintza eta kudeaketarako tresna baliagarrienetarikoa delako eta honenbestez, mendiko abeltzaintzarako mehatxua den otsoaren populazioa kontrolatuko dituen neurriak eta araudiak eskatzen ditu.

2- Eskoriatzako Udalak helaraziko dio Transitzio Ekologikoa eta Erronka Demografikorako ministeritzari, mendiko abeltzaintzaren aldeko apustua egiten duela eta honenbestez, otsoaren babesa

areagotzeko erabakiaren aurka eta otsoaren populazioa kudeatu ahal izateko baliabide guztiak har ditzala kontuan, besteak beste, ehiza.

3- Udalak helaraziko dio Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen sailari ez dezala otsoa babes bereziko espezieen katalogoan sartu eta honekin otso populazioei sarrera eta egonkortzea erraztu. Ez dezan kolokan jarri abeltzantza estentsiboa. Gurea bezalako lurralde txikian, mendiko abeltzaintza elkarbizi ezinezko praktika da eta otso populazioekin.

Eluskak esan du bere taldea abstenitu egingo dela, uste dutelako gai hori ez dela soilik udal-eremuan landu behar. Gai oso garrantzitsua dela uste dute, eta, beraz, Legebiltzarrean edo eremu handiagoko beste erakunderen batean aztertu beharko litzatekeena. Horretarako, uste dute oso garrantzitsua izango litzatekeela negoziazio-mahai moduko bat eratzea, non lehen sektoreko langileek, ekologistek eta gaian adituak direnek parte hartuko luketen, eta guztien artean akordio batera iritsi. Esan du ez dutela esan nahi nekazaritza edo abeltzaintza estentsiboaren aurka daudenik, baina otsoa ere hor dagoela, eta bere biziraupena ere bermatu behar dela. Bere ustez, esandako horiek elkartu egin beharko lirateke eta egon daitezkeen arazoak eta konponbideak mahai gainean jarri.

Josu Ezkurdiak erantzun dio ideia ona dela, deialdia egin duten sindikatuei jakinaraziko diela, baina oso zaila ikusten duela "Madrilen" entzuteko prest egotea, han hori onartu dutenak hemengo errealitatetik oso urrun daudelako.

Eztabaida amaituta, bozketa egin da, eta 5 zinegotzik alde bozkatuta (EAJ/PNVko 4 eta EEEko 1) eta EH BILDUKO 3 zinegotziak abstenituta, Udalbatzarrak mozioa onartu da.

## <u>10.- GALDE-ESKEAK.</u>

Ez da egon.

**Eta beste gairik ez dagoenez, 18:25ean amaitutzat ematen da bilera, eta bertan gertatutakoa, nik, Idazkariak, egiaztatzen dut.**

ESKORIATZAKO UDALA
alkatetza
JOSE RAMON ZUBIZARRETA ALEGRIA
2021/05/2720:07:17

ESKORIATZAKO UDALA
idazkaritza
kontuhartzailetza
MIREN EDURNE ITURBE LASCURAIN
2021/05/2718:13:20

## 1.- APROBACIÓN DE ACTA DE SESIÓN ANTERIOR.

Por encontrarla conforme es aprobada el acta de la sesión celebrada en fecha 23/03/2021

## 2.- COMUNICACIONES DE ALCALDÍA.

Se da traslado de la Resoluciones dictadas hasta el día 20/04/2021.
De forma expresa se da cuenta de los expedientes Nº 5 y Nº6 de modificación de créditos.

## 3.- DESIGNACIÓN DE REPRESENTANTE MUNICIPAL COMO VOCAL EN LA JUNTA DE LA MANCOMUNIDAD LEINTZ UDAL EUSKATEGIA

De conformidad con la propuesta elevada desde la Comisión Informativa de Personal y Hacienda, se acuerda, por unanimidad, NOMBRAR como nuevo miembro de la Junta de Leintz Udal Euskaltegia en representación del Ayuntamiento a la concejala Leire San Vicente Carrillo.

## 4.- DESIGNACIÓN, A INSTANCIA DE ESKORIATZAKO ELIZATEEN ELKARTEA (EEE), DE REPRESENTANTE MUNICIPAL COMO VOCAL EN EL PATRONATO DE JOSE ARANA FUNDAZIOA

De conformidad con la propuesta elevada desde la Comisión Informativa de Personal y Hacienda, se acuerda, por unanimidad, NOMBRAR como nuevo miembro del Patronato de Jose Arana Fundazioa en representación del Ayuntamiento y a propuesta de Eskoriatzako Elizateen Elkartea a María Jesús Fernandez de Arroyabe.

## 5.- BAJA DE DERECHOS RECONOCIDOS

Dada cuenta del expediente tramitado por el Servicio de Recaudación para la aprobación de la baja de derechos pendientes de cobro de ejercicios anteriores por prescripción, declaración de créditos incobrables, improcedencia, duplicidad y otras causas.

De conformidad con la propuesta elevada desde la Comisión Informativa de Personal y HAcienda y el voto favorable de todos los corporativos presentes, el Pleno ACUERDA:

**PRIMERO.-** Aprobar los expedientes colectivos de baja de derechos pendientes de cobro por los conceptos, sujetos pasivos e importes contenidos en las siguientes tablas y que a continuación se relacionan:

IMPUESTOS Y TASAS:

